

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Online denda bat erabiliko dugu gure produktuak saltzeko eta online denda hori bultzatzeko gure komunikazio kanal garrantzitsuenak telebista, internet eta YouTube izango dira.

Telebista iragarki bat jarriko dugu jendeak gure enpresa ezagutu ahal izateko. Beste alde batetik internet ere erabiliko dugu eta web orrialde ezberdinetan iragarkiak jartzen saiatuko gara, iragarki hauek gure enpresaren web orrialdera zuzenean eramateko. YouTube bideoak baino lehenagoko iragarkietan gure bideoa jartzen saiatuko gara, hortik baita ere gure web orrialdera zuzenean joan ahal izateko.



Denda fisikoa edukiko ez dugunez gure produktuak zuzenean gure bezeroen etxera iritsiko dira garraio-enpresa baten bitartez. Gure produktuak beste online dendetak baino azkarrago iritsiko dira eta arazoren bat baldin badago beraien produktuarekin enpresatik kontaktuan jarriko gara bezeroarekin arazoaz abisatzeko. Arazoa konpontzen dugunean bezeroari bi aukera emango dizkiogu, produktua berriro bidaltzea edo produktua nahi ez baldin badute dirua bueltatuko diegu.

